

Zangoza / 2020

KULTUR AGENDA

urria



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA VALLESANTORO
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Gomendatzen da lehentasunik ez duten kudeaketak aurrez aurre ez egitea oraingoz, 948 870 251 telefonora deituz edo infocultura@sanguesa.es helbidera posta bat bidaliz. Goizez, astelehenetik ostiralera, 09.30etik 14:00etara, eta arratsaldez, 18:00etatik 21:00etara, asteartetik larunbatera.

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko arreta ordutegia aurrez aurreko kudeaketa administratiboak eta bisitak egiteko: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara. 12:00etatik 13:00era 65 urtetik gorakoek lehentasuna izanen dute.

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea eta Erakusketa Aretoa bisitatzeako ordutegia honako hau da: asteartetik larunbatera, 11.30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara. 19:00etatik 20:00etara 65 urtetik gorakoek lehentasuna izanen dute.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea www.sanguesa.es web-orrian kontsultatu.

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko sarreren salmenta: irailaren 29tik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Tel.:** 948 870 251.

Sarreren salmenta emanaldien egunetan: Karmengo Entzunaretoko leihatila helduen emanaldietarako 19:00etatik 19:30era eta haurren eta familien emanaldietarako 17:00etatik 17:30era egonen da zabalik (sarrerak geratzen badira). **Tel.:** 948 870 632.

Beherapenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpezez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da sarrera entzunaretoan nahiz Interneten erosi bada.



ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA




Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO. El Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora edo adierazi txartel-leihatilan erosketara egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzero eman.



1	Og	Erakusketa "Papeles y telas 2019" (urriaren 12a bitarte)	4. orr.
	Og	Izen-emateak. Haurrentzako sortze-dantzako tailerrak (urriaren 13a bitarte)	12. orr.
2	Os	Izen-emateen amaiera. Antzerki tailerra	11. orr.
3	La	Musika. "Incorrectas". Kontzertu dramatizatua	5. orr.
4	Ig	"Lorategia azulanean" inauguratzea	12. orr.
5	Al		
6	As	Dokumentalaren eta ipuin-kontalarien gonbidapenak eskuragai	9. orr.
7	Az		
8	Og		
9	Os		
10	La		
11	Do		
12	Al	"Papeles y telas 2019" erakusketaren amaiera	4. orr.
13	As	Izen-ematearen amaiera. Sortze-dantzako tailerrak	12. orr.
14	Az	Ipuin-kontalaria (gaztelania). "Cuentos de ascensor"	10. orr.
15	Og	Erakusketa Nafarroa Ezagutu XII. Argazki-Lehiaketa (azaroaren 1a bitarte)	4. orr.
16	Os		
17	La	Dantza. "Saioak"	6. orr.
18	Do		
19	Al		
20	As	Helduak euskalduntzea. Diru-laguntzak eskatzeko deialdia (azaroaren 20a bitarte)	12. orr.
21	Az	Ipuin-kontalaria (ingelesa). "The hungry bear and other stories"	10. orr.
22	Og		
23	Os		
24	La	Musika eta keinu-antzerkia. "Maestrissimo"	7. orr.
25	Do	Familiako antzerkia. "La casa más pequeña"	7. orr.
26	Al		
27	As	Ipuin-kontalaria (euskara). "Zuhaitzen guda"	10. orr.
28	Az		
29	Og	Dokumentala. "Que nadie camine por mi mente con los pies sucios"	9. orr.
30	Os		
31	La	Antzerkia. "Lloviendo ranas"	8. orr.

Erakusketak



“Papeles y telas 2019”

ALFONSO ASCUNCE

URRIAREN 12A BITARTE

“Erakusketa honetan hainbat interes biltzen dira. Denbora, paradoxa, jolasa, biluztasuna edo gordintasunarekin lotutako lana da. Memoria propioa eta kolektiboa. Berezitasuna, bakea, gerra, anekdota ...

Pintura bera eta bere hizkuntza da benetan presente dagoena; argi dagoena, lausoa, pultsua, hotza, beroa, argia, iluna ... bezalako gako sinpleak kontuan hartuta”.

Alfonso Ascunce.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



“Satán”. Ainhoa Tejerina



“Enredados”. Alfredo Ruiz

Nafarroa Ezagutu XII. Argazki-Lehiaketa.

2019KO FINALISTAK

URRIAREN 15ETIK AZAROAREN 1ERA

Conocer Navarra aldizkariak bere argazki-lehiaketaren 30 irudi finalistak aurkezten ditu. Gure herriarekin maitemintzeko hogeita hamar argazki: gure jaien eta tradizioen onenarekin, gure ondarearekin eta noski, gure paisaiekin.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzaileak: Conocer Navarra eta Diario de Navarra.

Babesleak: Nafarroako Turismoa eta Eroski.

Laguntzaileak: Camera, Reyno Gourmet, Aldekoa Landetxea, VerduArte Jatetxea eta Nafarroako Gobernua.

Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia:

Asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Antzokira itzuli egin gara Gurekin zatoz?

Antzokirako itzulera ez da izanen martxoan Entzunaretoa azken aldiz sartu ginenean bezalakoa. Baina berdina izanen da aktore, musikari, dantzari eta abarren gaitasuna, beren proposamen artistikoekin gu hunkitzeko, gure barrea eta negarra eragiteko edo intentsitate handiagoz biziartzeko, ahal dela, gure itzulera antzokietara. Utz dezagun Nafarroako Antzoki Sareak proposatzen duen bezala *"fokuen argiak gure bizitza argi dezan"* eta itzul gaitezen antzokira. Gurekin etorriko zara?

Arte eszenikoak Carmengo entzunaretoan



MUSIKA. KONTZERTU DRAMATIZATUA

"Incorrectas"

DEMODÉ PRODUKZIOAK

LARUNBATEAN, URRIAK 3

Interpretatzaileak: Joli Pascualena: ahotsa eta gitar akustikoa; Leire Celestino: pianoa; Paula Azcona: txeloa.

Zuzendari eta testu egilea: Patxi Barco.

"Incorrectas" bere garaiko politikarekin, kulturarekin edo ohiturekin "okerrak" izan ziren abeslari edo musikagile ezagunei buruzko musika ikuskizuna da, haien artean oso bestelakoak izan arren: Janis Joplin, Maria Callas, Judy Garland, La Lupe, Dolly Parton, Nina Simone, Sinead O'connor, Chavela Vargas...

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 70 minutu.

Ordua: 20:00.

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €. Entzunaretoan leihatila 19:00etatik 19:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.

Gazte Txartelarekin: 5 €. Gazte txartela aurkeztu beharko da entzunaretoan sartzean.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan

Circuito de la Red de Teatros de Navarra

Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua

Saioak

Bilaka 2020

Diruz laguntzen duen erakundeak
Kultura - Musikak
Madrilgo Kultura



DANTZA

“Saioak”

BILAKA

Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua

LARUNBATEAN, URRIAK 17

Zuzendaria: Mathieu Vivier.

Dantzari-zerrenda: Zibel Damestoy, Arthur Barat, Iban Garat eta Oihan Indart.

Musikariak: Patxi Amulet, Xabier Etcheberry, Valentin Laborde.

Zuzeneko musika, dantza eta bideoa uztartzen dituen lana da “Saioak”. Konpainia beraren SAIO-ZERO ikuskizunaren partitura gurutzatu, irauli eta birdefinituetatik abiatuta idatzitako lana da. “Saioak” ikuskizunak euskal dantza tradizionalaren eta mundu garaikidean duen iraupenaren esplorazioa luzatzen du, interpretatzaileen nortasuna osatzen duenaren bila.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 60 minutu. **Ordua:** 20:00.

Aldez aurreko salmenta: 6 €.

Txartel-leihatilan: 8 €. Entzunaretoako leihatila 19:00etatik 19:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.

Gazte Txartelarekin: 5 €. Gazte txartela aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean.

Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS).

Diruz laguntzen duena: Nafarroako Gobernua.

Laguntzaileak: Nafarroako Kutxa Fundazioa & La Caixa Gizarte-ekintza.

Covid19 dela kausa harturiko neurriak: Une honetan garrantzitsuena zuen segurtasuna eta osasuna denez, Karmengo Entzunaretoa prestatu dugu osasun-agintarien jarraibideak betetzeko.

Antzokia desinfektatuta egonen da emanaldi bakoitza hasi baino lehen.

Antzerkiaren edukiera murriztu dugu. Plantilla aldatu egin da eta eserlekuen banaketa egokitu egin da distantzia, ikuskizun mota eta familia eta/edo bizikidetzataldean irizpidea kontuan hartuta.

Eserlekuak 1eko blokean (helduendako ikuskizunetan) eta 2ko blokean (haurrendako/familiendako ikuskizunetan) egonen dira salgai. Sarrerak eskuratzean, talde mota horretara egokitu behar da. Bi eserlekuren salmenta familia edo bizikidetzataldeei gaitzen zaie, pandemiaren aurka pertsona guztien erantzukizun indibiduala oinarri hartuta. Zalantzarik izan edo argibiderik nahi izanez gero, deitu 948 870 251 telefonora. Emanaldien egunetan leihatilan saltzeko ordutegiak aldatu egin behar izan ditugu.

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



MUSIKA ETA KEINU-ANTZERKIA

"Maestrissimo"

PRODUCCIONES YLLANA

LARUNBATEAN, URRIAK 24

Antzerkilariak: Eduardo Ortega, Jorge Fournadjiev, Isaac M. Pulet, Jorge Guillén
"Strad".

"Maestrissimo" XVII. eta XVIII. mendeen artean (Barrokoaren eta Neoklasizismoaren artean) zehaztu gabeko garai batean hari-laukote baten abenturak eta harriabarrak erretratzen dituen ikuskizun komiko eta musikala da. Bertutetsu hauek aurrera ateratzeko egindako ahaleginen lekuko izanen gara, artistek lorezainek edo sukaldariak izan zezaketen antzeko begirunea zuten garai batean. Musikiariak, biziraun ahal izateko, lan egiten zuten jauntxoaren desio eta kapritxoaren aurrean makurtu behar ziren. Batez ere zirkunstantzia-obrak konposatu edo eskaera oso zehatzei eta, sarritan, batere bizigarriak ez zirenei erantzunez.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu. **Ordua:** 20:00.

Sarrerak: 12 €. Entzunaretoan leihatila 19:00etatik 19:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernu.

Karmengo Entzunaretoan leihatila helduen emanaldietarako 19:00etatik 19:30era eta haurren eta familien emanaldietarako 17:00etatik 17:30era egonen da zabalik (sarrerak geratzen badira). Tel.: 948 870 632.

Kokatze egokirako, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago sartu ahal izanen dira ikusleak. Garaiz iristeko eskatzen da, sarrera mailakatua eta pixka bat motelagoa izanen baita. Ez da talderik osatu behar, ez sarreran, ez irteeran. Behin jarduera hasita, ezin izanen da sartu.

Irteera lasaia izanen da, garrantzitsua da aretoan langileen argibideei jarraitzea une oro. Beharrezkoa da sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta segurtasun-distantzia mantentzea. Beti erabili beharko dira maskarak antzokiaren barruan eta kanpoan. Adingabeak ere maskarekin joatea gomendatzen da. 10 urtetik beherakoek helduekin egon beharko dute.

Zerbitzuen erabilera ahal den neurrian mugatzea eskatzen dizuegu.

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



FAMILIAKO ANTZERKIA

“La Casa más pequeña”

YARLEKU TEATRO

2019ko Feten saria emakumezko interpretazio onenari Eva Azpilikuetaarentzat.

IGANDEAN, URRIAK 25

Antzerkilariak: Laura Villanueva eta Eva Azpilikueta.

Maleta batekin, sagarrondo txiki batekin eta laster itzultzeko gogoarekin, Bettinak atzean uzten du bere etxea, bonben zaratatik eta gerrak eragiten duen beldurretik atsedean hartzeko. Haur errefuxiatuek beren jatorrizko lekua utzi ondoren bizi duten ziurgabetasuna jorratzen du ikuskizunak, haien helmuga zein izan den jakiteke.

Familientzat (6 urtetik gorako haurrak).

Iraupena: 55 minutu. **Ordua:** 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €. Entzunaretoako leihatila 17:00etatik 17:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



ANTZERKIA

“Lloviendo ranas”

ADOS TEATRO

Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua

LARUNBATEAN, URRIAK 31

Antzerkilariak: Mila Espiga, Lierni Fresnedo, Isidoro Fernandez, Ion Sagarzazu, Sandro Laboni.

Gaixotasun mentalaren diagnostikoa duen pertsona batekin bere buruz beste egiteko zorian dirudi. Flashback moduan, protagonistaren eskutik bere bizitzara bidaia bat egingen dugu, bere gaixotasunaren prozesua islatuz, bere ukapen, onarpen, beldur, argitasun, umore, errebeldia eta abarren istorioa ere islatuz. Gaixotasun mentalaren diagnostikoa duten eta ez duten aktoreek osatzen dute taldea, eta gaixoak baino lehen pertsona direla aldarrikatzen dute. Geure zaurgarritasunari buruz hausnartzen du antzezlanak eta hunkitu egiten gaitu.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 65 minutu. **Ordua:** 20:00

Aldez aurreko salmenta: 6 €.

Txartel-leihatilan: 8 €. Entzunaretoako leihatila 19:00etatik 19:30era egonen da zabalik funtzioaren egunean. Ordu horretatik aurrera ezin izanen da sarrerarik erosi.



Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



Gazte Txartelarekin: 5 €. Gazte txartela aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean.

Ekoizpen hau nola sortu zen jakin nahi baduzu, hurbil zaitetz Kultura-Etxera urriaren 29an, ostegunarekin, 19:30ean, "Que nadie camine por mi mente con los pies sucios" proiektzioa ikusteko.

Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea

Diruz laguntzen duena: Nafarroako Gobernua.

Laguntzaileak: Nafarroako Kutxa Fundazioa & La Caixa Gizarte-ekintza.

Proiektzioa



DOKUMENTALA

"Que nadie camine por mi mente con los pies sucios"

Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua

URRIAK 29, OSTEGUNA

Dokumentala urriaren 31n ikusi ahal izanen da Karmengo Entzunaretoan. "Lloviendo ranas" lanaren sormen prozesua islatzen duen sormen laborategiaren emaitza da. Proiektzio honetan antzezlan profesionalera eraman zuten prozesu guztia ikusiko dugu. Gainera, jatorrizko antzetzaldeko kide baten esperientzia entzunen dugu (gaixotasun mentalaren diagnostikoa duen pertsona bat), azkenean beste bat bezala ikuskizun profesionalan integratu dena. Emanaldian Sandro laboni (aktorea) eta Jose Antonio Vitoria (gidoilaria eta ekoizle eragilea) izanen dira.

Iraupena: 51 minutu. **Ordua:** 19:30.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeke Hitzaldi Aretoa.

Doako sarrera edukiera bete artean. Gonbidapenak aldeztatik hartu behar dira. Gehienez ere 4 sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako. Gonbidapenak urriaren 6tik aurrera jaso ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Gonbidapenak ikusleak iristen diren hurrenkeraren arabera emanen dira. Sartu ahal izateko gonbidapena erakutsi beharko da. Behin jarduera hasita, ezin izanen da aretoara sartu.


Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea

Diruz laguntzen duena: Nafarroako Gobernua.

Laguntzaileak: Nafarroako Kutxa Fundazioa & La Caixa Gizarte-ekintza.



Ipuin-kontalaria




“Cuentos de ascensor”

SERGIO DE ANDRÉS

(Gaztelaniazko ipuin-kontalaria)

ASTEAZKENEAN, URRIAK 14

Gora eta behera doazen ipuinak, botoi bat sakatze hutsarekin. Euren atea irekitzen dituzte eta kontuz ixtean.. batez ere ez geratu igogailu- ipuinetan itxita.



“The hungry bear and other stories”

HANNAH BERRY

(Ingeleseko ipuin-kontalaria)

ASTEAZKENEAN, URRIAK 21

Haurrek, gosetutako hartzaren istorioa entzun ondoren, hizkuntzarekin modu dibertigarrian konektatzen dute, ondoren beren istorioak proposatzeko eta taldean azaltzeko.



“Zuhaitzen guda”

MAITANE PÉREZ

(Euskarazko ipuin-kontalaria)

ASTEARTEAN, URRIAK 27

Alexek lagun oso berezi bat dauka, haurdanik bere ondoan egon den zuhaitz bat. Bere sustraien azpian bere altxorrak ezkutatzen zituen eta berari kontatzen zizkion bere sekretu aitoretzinenak. Orain, beste zuhaitz asko bezala, arriskuan dago.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak.

Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak alde aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako eta saioko. Sarrerak ez daude zerbaituta. Ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapena erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko. Ekitaldia behin hasita, ezin izanen da sartu. Gonbidapenak urriaren 6tik aurrera Kultura-etxean hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Ordua: 18:30.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Covid19 dela kausa harturiko neurriak:

Jendeak aulki bana izanen du esleituta pertsona bakoitzeko (bai helduak bai umeak), eta bertan eserita egon beharko du ipuin-kontalaria hasten denetik amaitzen den arte. Haurtxoak ere zenbatzen dira edukiera kontrolatzeko. Beharrezkoa da sarreran zein irteeran gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta distantzia soziala mantentzea. Nahitaezkoa da maskara mantentzea emanaldi osoan. Gomendatzen da umeak ere maskarekin joatea. Sarreran nahiz irteeran taldeak sortzea saiestu behar da. Atea Ipuin-kontalaria hasi baino 30 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin. Jendeak uneoro jarraitu beharko ditu Kultura-etxeko langileen jarraibideak.

Tailerrak



ANTZERKI TAILERRA

URRIAREN 15ETIK 2021EKO OTSAILAREN 25ERA.

Interpretaziora hurbiltzea antzerki-jolasen bidez. Gorputz-adierazpena, mugimendua eta begirada landuko dira, pertsonaiak eta istorioak asmatzeko. Anima zaitetz! Proiektu hau Nafarroako Antzoki Sareak antolatutako eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta La Caixa Gizarte-ekintzaren laguntzarekin bultzatutako **“Salto a escena-Oholtzara Salto”** proiektuaren parte da. Arte eszenikoak gazteei hurbildu eta protagonista bihurtu nahi dituen ekimena.

Zuzendaritza: Quiero Teatro.

Adinak: 13tik 17ra.

Eguna: Osteguna.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Gutxienezko ikasle kopurua: 5.

Gehienezko ikasle kopurua: 12.

Saio kopurua: 29.

Doako matrikula

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Izen-emateak: urriaren 2a bitartean Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; baita 948 870 251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea .

Laguntzaileak: Nafarroako Kutxa Fundazioa eta La Caixa Gizarte-ekintza.

HAURRENTZAKO SORTZE-DANTZAKO TAILERRAK

Haurrengan dantza sustatzeko ekitaldia, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 urteetan jaiotako haurrei zuzenduta. **Irakasleak:** Fueradeleje Dantza Konpainia.

HAUR-DANTZAKO TAILERRA (I)

URRIAREN 16TIK 2021EKO EKAINAREN 11RA

Adinak: 2013an eta 2014an jaiotako haurrak.

Eguna: Ostirala.

Ordutegia: 17:30etik 18:30era.

Ordu kopurua: 26.

Matrikula: 52 € .

Gutxienezko ikasle kopurua: 8.

Gehienezko ikasle kopurua: 10.

Covid19 dela kausa harturiko neurriak:

Kultura-etxeko aretoak prestatu dira beharrezko higie-neurriak betetzeko. Ikastaroen edukiera murriztu da, segurtasuneko pertsonen arteko distantzia errespetatuz. Erabilera bakoitzaren ondoren, espazioak desinfektatu eta aireztatuko dira. Hidrogela jarri da jardueraren sarreran eta irteeran erabil dadin. Derrigorrezkoa izanen da maskara erabiltzea Kultura-etxean zauden bitartean. Garrantzitsua da Kultura-etxeko langileen oharpenak uneoro jarraitzea.

Tailerrak



HAUR-DANTZAKO TAILERRA (II)

URRIAREN 16TIK 2021EKO EKAINAREN 11RA

Adinak: 2009, 2010, 2011 eta 2012an jaiotako haurrak.

Eguna: Ostirala. **Ordutegia:** 19:15etik 20:15era.

Ordu kopurua: 26. **Matrikula:** 52 €

Gutxienezko ikasle kopurua: 8. **Gehienezko ikasle kop.:** 10

Lekua: Vallesantoro Jauregia-Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa

Izen-emateak: Urriaren 1etik 13ra Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; baita 948 870 251 telefonora deituz edo emailuz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Izena emateko baldintzak: Gutxienezko ikasle kopurua lortuko ez balitz bertan bhera geratuko litzateke. Eskaera toki eskaintza baino haundiagoa izango balitz eskatzaile guztien artetik zozketa bat egingo litzateke. Nork bi izen-emate egin ahal izango ditu gehienez ere. Ikastaroa Kultura-zerbitzuan ordainduko da izena emateko epea behin bukatuta eta aurreikusten den ikastaroa hasteko eguna baino lehen.

Beste zenbait ekitaldi



“LORATEGIA AUZOLANEAN” INAUGURATZEA

Osasun-etxearen ondoko lorategia (Cantolaguako Pasealekua)

URRIAK 4, IGANDEA

11:00etan Harriak margotzeko haur-tailerra Iratxe Beloquirekin.

Ikasle kopurua: 10. (4 urtetik aurrera). Pertsona gehiago baleude zozketa bat egingen litzateke.

Epea eta izen-emateak: urriaren 3a bitartean whatsapp bat bidaliz 630 141 784 telefonora. Pertsona bakoitzak gehienez bi haurren izena eman ditzake.

11:45ean Agurra Rocamador Dantza Taldearen eskutik eta **Inaugurazio ekitaldia.**

Partaideak: Fulgen Sutil proiektuaren zuzendariak, Juan Mari Artazkoz; Antonio Vilches, Ardaskako presidentea eta Lucía Echegoyen, Zangozako Alkatea.

Lekua: Lorategiaren ondoko eremua. Osasun-etxeko aldea.

Antolatzailea: Zangozako Udaleko Gizarte-gaien, Osasungintzaren eta Ingurumenaren Alorra

Laguntzaileak: Ardaska Elkarte eta Rocamador Dantza Taldea.



HELDUAK EUSKALDUNTZEA. DIRU-LAGUNTZAK

URRIAREN 20TIK AZAROAREN 20RA ARTE

Oinarriak eskuragai dituzue Kultura-zerbitzuan edo www.sanguesa.es udaleko web-orrian urriaren 20tik aitzina.